

Orient-expresseko hilketa

Agatha Christie

Itzultzailea: Ainhoa Eder Zabala

2004

Igela

Eleberri beltzaren klasiko bat euskaraz.

Ez zaizu damutuko, ez horixe, eleberri hau hartu eta irakurtzen hastea erabakitzen baduzu. Hasieratik bertatik harrapatuko zaitu eta ez dizu bakerik emango harik eta azken orrialderaino iristen zaren arte.

Agatha Christie idazle ingelesaren eleberririk onenetakotzat jo dezakegu, onena ez bada, *Orient-expresseko hilketa*. Eleberri beltzaren elementu guztiak aurkituko dituzu bertan, bikain landuak: gune itxi bat (treneko bagoia), ustezko hiltzaileak ez baitu handik ihes egiterik izango; nobela-problema, Poerekin Ameriketara sortua eta gero Europara hedatua: Doyle, Chesterton eta Christie eskola anglosaxoietik eta Gaboriau, Leblanc, Leroux eta Simenon eskola frantsesetik; eta, azkenik, detektibe analitikoa, H. Poirot famatua, dedukzioarekin obsesionatutako gizon belgiar aburgesatu eta ziniko samarra, gerora, A. Christiek berak beste eleberri batean hil egingo duena.

Egundoko maisutasunez bilbatuko digu egileak trama osoa. Poliki-poliki joango dira gauzak konplikatzen, puzzle handi bateko piezak bailiran. Poirot eta M. Bouc-en intuizioa geurearekin, irakurleon intuizioarekin lehian arituko dira. Hainbeste dira pistak, hainbeste datuak, batzuetan galduta sentitzera ere iritsiko baikara. Baina ez gu bakarrik, detektibe argiak ere eskema edo zerrendak baliatuko baititu tramaren elementu guztiak begien bistara ekartzeko. Asko laguntzen dute, era berean, elkarriketek datu eta pisten anabasa arintzen. Hala, zuzenean sartuko zara traman elkarriketa eta eztabaiden bitartez, eta ez duzu bertatik irtetea lortuko harik eta amaiera txundigarri bezain interesgarrira iritsiko zaren arte. Txundigarri diot, hala izan baita nire kasuan, baina hori, jakina, irakurle bakoitzaren esku dago.

Eleberri beltzei, zuzenean edo zeharka, literatur balio eskasa edo, nahiago bada, arinkeria egotzi dionik ere izan da. Eskuartean dugun eleberriaren kasuan ezin izango

zaio, nik uste, halakorik egotzi. Hasi pertsonaien karakterizaziotik, jarraitu enigmak irakurlearengan sortzen duen jakin-min eta ebatzi-beharrarekin, eta ezusteko amaierako klimax-eraino, irakurlea guztiz inplikaturik sentituko da eleberri honetan. Sakonean ongiaren eta gaizkiaren gaineko gogoeta bat baitago, hausnarketa etiko bat, alegia.

Askotan azpimarratu izan dugu klasikoak euskaratzearen garrantzia. Puri-purian dabil, halaber, garaiotan euskararen erabilerari buruzko kezka. Hala, soziolinguistek entzunda dakigu hizkuntza bat erabiltzeko faktore garrantzitsuenetako bat motibazioa dela. Gai horri buruz hainbat azterlan, inkesta eta abar egiten dituzte eta egiten jarraituko dute aurrerantzean ere. Bada, ordea, kontu bat honezkero ondo identifikatua duguna: nahigo izaten ditugu gauza atsegin-emaileak, obligazio eta nekeak baino. Bada, irakurleok ere, gizaki garen ber, nahiago ditugu pasioz beteko gaituzten irakurketak, eleberriak hasi eta buka irenstera eramango gaituztenak. Eta hala, eleberri beltzaren kontsumitzaileontzat zer motibagarriagorik *Orient-express* euskaraz irakurtzeko parada izatea baino? Eleberri beltzaren historian klasiko bat den hau euskara txukunean irakurtzeko aukera, horra Igela argitaletxeak eta Ainhoa Eder itzultzaileak Olentzerotarako egin diguten oparia. Estimatzekoa, benetan.

Mikel Garmendia.